



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN UNIBERTSITATEAZ BESTEKO IKASTETXEEN SAREA ANTOLATZEKO ETA PLANIFIKATZEKO IRIZPIDEAK EZARTZEN DITUEN OTSAILAREN 3KO 21/2009 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.

Aldarrikatu zenetik, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko aurretiazko kontsulta egiteko dena.

Arlo horretako lege-aldaketak eta euskal gizartearen bilakaera demografikoa kontuan hartuta, beharrezkoa da egungo araua berrikustea, errealitate berrira eta datozen urteetarako aurreikusitako aldaketetara egokitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia jasotzeko.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Hori dela eta, xedapen orokorra egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragindako herritarrek eta gainerako erakundeek parte hartzeko eta planteatzen den aruari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta organizazio, entitate edo elkarte guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.





Beraz, kontsulta publikoaren izapide hori da une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egingo da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak eskuordetutako eskumenen arabera, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua gauzatu baino lehen, kontsulta publikoaren tramitea egitea.

Bigarrena.- Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, hamar egun balioduneko epea izango dute agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak emateko, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 21

Jokin Bildarratz Sorron  
HEZKUNTZA SAILBURUA